

Hiru hildako Goardia Zibilak Donostian burututako operazioan

Hiru ordutako tiroketaren ostean ustez ETako lau kide zeuden etxean sartu ziren

Hiru hildako eta hamar atxilotu da Goardia Zibilak atzo goizaldean Donostia eta inguruetan burutu zuen operazioaren emaitza. Amara auzoko etxe batean inguratu zituen Goardia Zibilak ustezko lau ETakide, hiru ordutako tiroketaren ostean barrura sartu ziren eta bertan gelditzen ziren hiru hil ziren. Ez da hauen izenik ezagutzera eman.

DONOSTIA

Goizeko bederatzi t'erdia aldera erabat inguratua zuten Goardia Zibileko GAR (Grupos Antiterroristas Rurales) taldeko kide ugari Donostiako Amara Zahar eta Berriren artean dagoen Morlans auzoa. Bertako 'Tolaretxe' izeneko etxean zeuden ustez ETako kide ziren lau lagun. Hamar t'erdia aldera hasi zen tiroketaren emaitza, hauetako hiruren heriotza eta laugarrenaren atxiloteta da. Operazio honetan bi goardia zibil zauritu ziren.

Hildakoen izenik ez da ezagutzera eman, eta Gipuzkoako Gobernu Zibilak arratsaldean gertaeren bere bertsioa eman bazuen ere, ez zuen hildakoen berri eman. Hala ere, bi izen zabaldu ziren atzo, ustez hildakoenak direnak. Patxi Itziar, Mutrikukoa eta Iñaki Ormaetxea, Urbina-koa lirateke. Hipotesi honen arabera hirugarren hildakoa Gipuzkoako Goierriko hamabost urteko gizon-zeko bat litzateke.

Maria Eugenia Muñagorri da, bestalde, Goardia Zibilak atxilotu zuen pertsona. Tiroketaren erdian irten zen etxetik. Gobernu Zibilak dioenez zauririk ez badu ere, lekuek diotenez odoleztaturik atera zuten.

Estatuko Seguratasun Indarrek goizeko seietan eman zioten hasiera



Gobernu Zibilak ez zuen hildakoen nortasunik ezagutzera eman nahi izan.

C. VILLAGRAN

operazioari. Amnistiaren Aldeko Batzordeak jakitera eman zuenez, goizeko seietan egin zituzten lehen-dabiziko atxilotetak Errenterian eta Donostian. Gutxienez bederatzi pertsona atxilotu dituzte eta etxe miaketak ere izan dira Gipuzkoako beste herri batzuetan eta Donostian bertan ere.

SARTZEKO UNEAN LEHERKETA

Goardia Zibilak gasak erabili zituen etxean zeudenen kontra DYA eta Gurutze Gorriko iturriek esan dutenez. Tiroketa hasi bezain pronto guztia inguratu zuten, pasalekua guztiei eragotziz. Lehendabiziko tiroketetan bi gardia zibil larri zaurituta gertatu ziren. Diego Bravo eta Jose Luis Renco Donostiako «Nuestra Señora de Aranzazu» eritxera eraman zituzten bala zauriak

bait zituzten.

Morlans auzoko hainbat etxeko biztanle etxetik atera zituzten, enfrontamenduak iraun zuen bitartean. Antza denez, GAR taldeko kide batzuk prest zeuden «Tolaretxe» etxebizitzan sartzeko oxigenoz baliaturik, etxean zeuden lau ETA kideak ganbaran bait zeuden ordu hoietan, Estatuko Seguratasun Indarrei aurre egiten.

Tiroketak hiru ordu inguru iraun zuen. Tarteka entzuten ziren epe horretan tiro hotsak. Arratsaldeko lehen orduan amaitu ziren dirudien Goardia Zibilak leherketa bat eragin ondoren. Orduan isiltasuna etorri zen eta hildakoei buruzko informazio nahasia zabaldu zen.

Hiru ustezko ETA kideek ganbaran zeuden bitartean laugarrena zaurituta atera zuten. Estatuko Segur-


tasun Indarrak arrastaka atera zuten Maria Eugenia Muñagorri Tolaretzeko jabea, eta ustez ETA kideekin etxe barruan zegoena. Inguruko etxe bateko bizilagun batek adierazi zuenez, Muñagorri zaurituta zegoen eta «Gora ETA» ohikatu zuen Goardia Zibilak atxilotu zuenean. Gobernu Zibilak ez du nora eraman duten aditzera eman nahi.

Arratsaldeko seietan hiru ETA kideen gorpuek Tolaretxan jarraitzen zuten, epaileak jasotzeko agindua eman arte. Arratsalde osoa Estatuko Seguratasun Indarrak Morlans auzoan izan ziren, Tolaretxe inguratuta eta etxea miatzen aritu ziren.

ROLDANEK BERTSIO OFIZIALA

Luis Roldan Goardia Zibileko zuzendaria Donostian zen atzo operazi poliziala zuzentzen, eta ger-

✓ Hildakoen nortasunik ez du ezagutzera eman nahi izan Gipuzkoako Gobernu Zibilak



✓ ETako 'Donostia komandoko' kide zirela dio Goardia Zibilak, eta guztira hamar lagun atxilotu ditu

taeri buruz informatu zuen arratsaldeko zazpitan.

Goardia Zibilak ETako 'Donostia komandoko' kideak zirela dio. Atzoko gertaerei buruz, Tolaretxetik tiroz erantzun zitzaizela esan zuten, eta bost aldiz eskatu zetela iten zitezen.

Gipuzkoako Gobernu Zibiletik esan zenez, operazioa datorren aserako zegoen aurikusia, baina bihar atentatu bat izango zenaren beldur aurreratu egin zela.

Hiru ordutik luzatu zen tiroketa

IRUNEA

Goizeko hamar t'erdietan lehen tiro hotsak entzun zirenetik, argibide gutxi izan zen gertaeren lekuan zenbait ordu pasa ziren arte. Hiru ordu luzetan tiro hotsak eta anbulantziaren joan-etorriak etengabe entzun ziren.

Morlanseko inguruak, Goardia Zibileko GAR taldeek «Grupos Antiterroristas Rurales» eta DYako anbulantziek inguratu zituzten eta etxebizitza asko hustu zituzten. Nahasmen giroa sortu zuen hone, zauritu edo hildakorik ote zen ez bait zen arratsaldeko lehen ordurarte jakin. Goizean bi goardia zibil zauritu zituztela bakarrik jakin ahal izan zen.

Hamaikak laurden gutxitan eraman zituen DYak Jose Luis Rencok eta Diego Bravo goardia zibilak Do-

nostiako Arantzazuko Ama ospitalera. Biek bala zauriak zituzten eta euren osasun egoera «larria» da, ospitaleko iturriek jakin erazi dutenez.

Lekukoek azaldu zuten, goardia zibilak menditik hasi ziren ustezko ETakideak zeuden etxeraino jaisten goizeko bederatzi t'erdietan eta hamar t'erdia aldera hasi ziren lehen tiro hotsak ez ziren arratsaldeko ordu bata t'erdia arte isildu. Lekukoek diotenez, tiro gehiago eta leherketa bat entzun zen orduan eta hori izan zen amaiera. Hiru hildakoei buruzko lehen informazio, konfirmatu gabekoa zabaldu ziren orduan. Arratsaldeko seietan Goardia Zibila oraindik gertaeren lekuan zegoen gorpuek jasoko zituen epailea iritsi zain.

Kanpora bitartean datu ziur gutxi iristen zen, eta bertan bildurik ziren

komunikabideei zenbait bideo zinta kendu zizkien goardia zibilek.

Jose Luis Rencok sorbaldan zuen tiroa eta larrialdietako zerbitzuetan dago. Diego Bravok berriz eskumuturrean zuen bala eta operatu egin behar izan zuten.

Hirugarren zauritu bati buruzko zurrumurrua zabaldu zen eguerdian. Zauritu hori, Goardia Zibilak eraman zuen Maria Eugenia Muñagorri, 'Tolaretxe' etxeko jabea zela esan zen arratsaldean baina Gobernu Zibilak ez zuen hori egiaztatu. Lekukoek adierazi zuten, «gaztea zaurituta zegoen, eta 'Gora ETA' esaten ari zela atera zuten etxetik».

Muñagorriren osasun egoerari buruzko daturik ez da ezagutzera eman, DYako kideek jakin erazi zuten, erabat odoleztaturik sartu zuten polizia kotxe batean.



Arratsaldeko seirak pasa eta gero atera zituzten gorpuek.

EFE